

IRAKASKUNTZA-GIDA

2016/17

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25951 - Gizarte Errealitateen Behatokia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgai hau “Praktikak eta Gradu Amaierako Lana” moduluari dagokio, titulu akademikoaren borneyan kreditu gehien duena: gelako praktikak (24 kreditu), kanpoko praktikak (32 kreditu) eta Gradu Amaierako Lana (10 kreditu).

Modulu hau konpetentzia profesionalen garapenari estuki lotuta dago. Izan ere, ikasleek lan profesionalerako ezagutza eta oinarrizko gaitasunak erdiestea bermatzen baita, bai esku-hartzeari dagokionez bai Gizarte Langintzako ikerketari begira ere. Modulu hau titulu akademiko osoan zehar eskaintzen da, jardute profesionalerako hurbilketa progresiboa bilatuz. Prozesu hau practicum eta Gradu Amaierako Lanarekin amaitzen da azken ikasturtean. Harremana duten ikasgaiak: Gizarte baliabideen behatokia, Jardute profesionalerako sarrera, kanpoko praktikak: practicum, Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala eta Gradu Amaierako Lana.

Irakasgai honetan giza errealitatearen oinarrizko ezagutza lantzen da, baita gizarte arazo eta fenomenoak ere, gizarte langintzak ikergai hartzen dituen populazio sektore nagusiak aztertuz. Gizarte sektore eta kolektiboen ikerketak hurbilketa teoriko nahiz diagnostikoa inplikatzeko du. Aldi berean, talde-lana eta komunikazio gaitasunak (ahozko eta idatzizkoa) landuko dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasgaiako konpetentzia espezifikoak:

1. Errealitate soziala kritikoki aztertzea, gizarte-problematika berriak identifikatu eta aurreikusi ahal izateko (MO6CM03).
2. Informazio iturri ezberdin eta IKTak (informazio teknologia berriak) erabiliz, hurbilketa diagnostikoko lan teoriko bat osatzea eta idaztea(MO6CM06).
3. Informazioa laburbiltzea, arrazoiketa ildoak garatzea eta argudiaketa bati eustea(MO6CM07).
4. Zuzentasunez mintzatzen eta idazten jakitea (MO6CM09).

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

Gizarte sektore eta egoera sozial zaurgarrietan dauden kolektibo nagusiak. Hurbilketa teoriko eta diagnostikoa

- Familia, haurrak eta gazteak.
- Adineko pertsonak
- Gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudenak.
- Gaixotasun kroniko edota desgaitasunak dituztenak (fisiko, intelektual edota zentzumenekoak)
- Etorkinak
- Talde etnikoak
- Menpekotasunak dituztenak.
- Emakumeen kontrako indarkeria
- Giltzapeturik daudenak eta egon direnak
- Ahozko zein idatzizko trebetasunak
- Taldean lan egiteko trebetasunak

METODOLOGIA

Irakaskuntza mota hauek sustatuko dira:

„ Aurkezpen teorikoak

- Gelako praktikak
- Ordenagailuko praktikak
- Ikasleen lan autonomoa

Honakoak dira hezkuntza motak:

- Gelan testu irakurketa eta eztabaida.
- Zenbait erakunderen hitzaldi eta eztabaida.
- Talde lanak.
- Talde aurkezpenak eta eztabaida.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	22,5		67,5						

Legenda: M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 40
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 60

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMARI DAGOKIOLA: Ebaluaketa sistema mistoa izango da: %40 balio duen banakako froga egongo da eta %60a balio duen talde lana. Konkretuki:

- Banakako froga: Sarrera teorikoan oinarritutako frogak (notaren %40)
- Taldeko lana: Gizatalde zehatz baten errealitatearen inguruko lan eta aurkezpena (notaren %60: lan idatzia %40 eta aurkezpena %20).

Irakasgaia gainditzeko, bi parteak gainditu beharko dira. Hauetarikoren bat ohiko deialdian gaindituko ez balitz, gainditutakoaren nota ez-ohiko deialdirako gordeko litzateke. Hala ere, ez dira nota hauek kurtso batetik bestera gordeko.

AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA ESKATZEKO PROZEDURA: Ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako - Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua- dela medio (ikus web gunea).

Azken ebaluaziorako eskubidea dutenentzat:

- Banakako frogak: Sarrera teorikoan oinarritutako frogak (notaren %40)
- Banakako lana: Gizatalde zehatz baten errealitatearen inguruko lan eta aurkezpena (notaren %60).

ESKOLETARA ETORRERARI BURUZ: Etorrera %80an behintzat konpliztea beharrezkoa da. Hala horrela ez balitz, eta ikaslea ez etortzeko arrazoi justifikatua edukiko ez balu, ohiko deialdian **SUSPENSOREKIN** izango da kalifikatua. Aurrekoa kontuan harturik,

OHIKO DEIALDIARI UKO EGITEKO BIDEA: Deialdiari uko egiteko, banakako frogak ez egitearekin nahikoa da. Kalifikazioa: **EZ AURKEZTUA** izango da.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ezohiko deialdirako ebaluazio portzentaiak eta prozedurak ohiko deialdirako dauden berdinak izango dira.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak egelan eskegiko ditu nahitaez erabili beharreko materialak.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

Arriaga, Mikel eta García, Oihane (2007). "Ciclo de vida adolescente, minorías y proyecto de vida de calidad"; IX Congreso Español de Sociología. Barcelona: FES.

De la RED, Natividad (2003). Trabajo Social y demandas emergentes. Madrid: CCS.

Eusko Jaurlaritza Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila (2012): "Pobreziari eta gizarte desberdintasunei buruzko 2012ko inkesta. Emaiza nagusiak"; Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. 1-14 orr.

Manzanos, César (1998). "Salir de prisión: la otra condena", Zerbitzuan, 35, 64-70 orr.

Martin, María José (2014). "Emakume etorkina Euskal Autonomia Erkidegoan"; En Moreno, Gorka (Ed.). Inmigratioa eta krisiaren eragina. EAEko inmigratioari buruzko 2013ko urtekaria. (137-152 orr.). Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Mier, Iratxe, Canto, Ainara eta Uribelarrea, Elda (2006). "¿Hay mujeres pobres en la CAPV? La pobreza en las mujeres solas", Zerbitzuan, 40, 67-71 orr.

Ortiz, Luis (2004). "La opresión de minorías sexuales desde la inequidad de género"; Política y cultura, 22, 161-182 orr.

Ruiz, Susana eta Martín, María del Carmen (2012). "Nuevas formas de familia, viejas políticas familiares. Las familias monomarentales", Revista Crítica de Ciencias Sociales y Jurídicas, 159-175 orr.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Drogomedia Boletina, <http://drogomedia.com/es/boletin/>

Gizarteratuz Boletina, <http://www.sis.net/es/publicaciones/gizarteratuz/>

Servicios Sociales y Política Social, https://www.cgtrabajosocial.es/revista_inicio

Cuadernos de Trabajo Social, <https://revistas.ucm.es/index.php/CUTS/>

Documentos de Trabajo Social, <http://www.trabajosocialmalaga.org/revistadts/>

Zainduz Koaderno Teknikoak, <http://kalitateazainduz.net/eu/que-es-la-fec.php>

Zerbitzuan, <http://www.zerbitzuan.net/>

Interneteko helbide interesgarriak

Aministia Internacional

Arabako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia

Ararteko

Bakea eta Elkartasuna Fundazioa-Globalizazioan lanaren behatokia

Bizkaiako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia

Cáritas

Emakunde

Espainako Barómetro sociala

Espainako Gizarte Behatokia

EUROSTAT

Gao Lacho Drom Ijitoen Elkartea

Gipuzkoako Foru Aldundia- Gizarte Zerbitzuen Behatokia

Gizarte Langintza Elkargo Ofizialen Elkargo-Orokorra

Hautzaroaren behatokia

Ikuspegiak-Gizarte Gaien Behatokia. Inmigratio Behatokia

INE-Estatistikako Institutu Nazionala

Oberaxe-Arrazakeria eta Xenofobiaren Behatokia

SIIS-Eguia Careaga Fundazioa

OHARRAK